

Erref. kodea: LAF-218-190 [16]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak: Dagorret.

Bernard 'Amikuzeko lapurtarra': [Kuruxeta
adiskideari gutun irekia]

Dago vet
Berant ek
posua

Curutchet adixkidea,

Irakurri diat, beste hanitzek bezela, "Herrian" ezarri dukan artikulua. Badakik ez nizala ixilik egoile hetarik. Onhartuko duk aise, ene gogoetak eman ditzadan. Ez diat erran nahi hire arrazoinak makurrak direla, eta eneak xuxenak. Xehetasun zonbeit dezteat eman nahi, bereziki, behar bada ez baitazkik, eta jakin behar bai huzke, izkiri atzen hasi aintzin. Hanitz aldiz gertatzen dena duk, zorigaitzez, norbeiten kontra delarik, norbeit haren arrazoinak ez entzun nahi izaita ere, kontra delakotz; norbeit harek erran egiak, egiak erraiten dituelarik, ez sinetsi nahi izaita, harek erranak direlakotz.

Norbeit hori, ez diat Daniel Landart. Norbeit hori diat Enbata.

Komuniztak errespetatuak dituk. Nolaz ez? INDARRA badie. Nor nahik, girixtinoak lehen, erranen dik heietaz: errespetua hartze dutela, zinez ari diren ber, finak diren ber, beren ideietan sineste-mina duten ber. Balinbadira ere heien "teoriak" makur-kondu ekarria

Enbatarentzat nehork ez dik holakorik erraiten. Nehork ez ditik nahi errespetatu multzo hortan barne direnak, heien ideien kontra den ber. Enbataren kontra direnetan, nehork ez dik erraiten Enbatataarrentzat, komunistentzat bezela, badutela dretxoa beren ideien ukaiteko ta erakusteko; errespetagarri direla, zinez eta finean ari diren ber.

ENBATA-ren alde edo kontra izaita, bako txari doakona. Jakin-gabean, edo ez-jakin nanian, Enbatako JENDEEN ostikatzeta, hortan duk Eskualdun hanitzen hutsa, eta huts handia. Ideiak aurdik, arrazoinka. Jendea ez ostika.

Engoetik diokek, hain segur, Enbataren alde-mintua nizala. Batere ez dakik, zer nahi gisaz. Badiat ene pentsa-moldea, hortan ere, bainan ez diat agertzen, alde ez kontra. Artetik erraiteke ixilik egoileak ere askotan errespetagarri dituk... Hatik entseatzen nuk jakitera nun den egia, ta nun gezurra, ez mintzatzeko nola nahika.

Beraz, hemendik aintzina irakurtzean, emak ontsa gogoari, behar bada errotik Enbataren aldekoa nizala, behar bada errotik kontrakoa nizala. Emak gogoari, gauzak xuxen ikustea maite duten hetarik nizala.

&&&&

...Eta goazen urhaska, hire artikuluari ~~egituz~~ jarraikiz.

"Preso? Ez arras. Ohean lo egiten du, ontsa jaten...Ez da presondegia bortitza. " Iduri zautak halere handiskoa bota dukala hori! Ez diat erraiten ez dukala egia erraiten. Uste diat egia erraiten dukala: ohean lo egiten duela, ongi jaten. ^{Hak} Hogoi-ta-hitu urteko gazte batentzat ez likek erran behar ez dela presondegia bortitza. Presondegiko KONDIZIONEAK ez bortitzak izanik ere, presondean EGON BEHAR izaita ez dea bortitz? Hori duk, ene iduriz, arinki aipatu behar ez den gauza bat han denaren, haren burhaso ta haurriden, haren adixkiden errespetuz.

Emak ama bat, haur bat duena, ~~arunt~~ zentzu-gabea. "Haur hori zurea? Arrunt zozoa da..." Erranen dakoka? ...

"Bertzeen neskato izaitea" aipatzen duk delako neskatoaz. Ez zakiat ontsa konprenitu dutanetz. Enbatako buruzagien neskato zela erran nahi duka? Baduk horren erraile: neskatoaz pena hartuz, bestentzat herra gehiago har dezaten... Xehetasun zonbeiten emaiterat abiatua bainiz, huna bat: neskato delakoa ez duk on nehoren neskato plantatzeko: ez dik jitea gisa hartarakoa-ta! Beraz, jakin-gabean mintzatu hiz: gezurra bezain lanjeros baita. Edo jakinean. Ez baita hobe. Hihaurek dakik. Hauta hihaurek.

Lerro batzu ezarri dituk naski, haratxago, behar gabe. Doziera hutsa hatxemaiten dutela akusatzailek; multxo batek jakinki zertako den arrastatua, eta ez erraiten. Ez zakiat bada! Akusatzaillek ez balinbadute hutsik hatxemaiten, zer behar dioten hatxeman adixkidek!

Entzun nahi duenak entzuna dik hauxe: arrastatu baino LEHEN erran ziotela haren lagunari arrastatua ZELA; Hutsa egina balinbazuen (ez duk eni jujatzea) ez zuan zer nahi gisaz erran duten hutsarentzat altxatua.

Sakrifizioaren ixtorio hartarat helduak gituk. Hortan, (den bezela erraitea hobe) ez duk deus konprenitu. Ez zitean ez erran nahi neskatoaren pizua eskaintzen zutela, lehengoek aratze ak bezela! Uste-gabean, irri-zafila onik eginarazi duk irakurler.

Erran nahi zitean, kasu hori zela lehenbiziko pena bizia, lehen zauria, Enbatarentzat.

Presoneraren alde, ixilik eta abilki arizan diren hek, ez die deus egin, badakik hori. Edo ez nahiz egin; edo ezin egin. Gero, Enbata abiatu delarik, aise xuritu die beren burua: Ah! Enbata ixilik egon balitz!

Ahantzia naski, Enbata ixilik egon dela, sei hilabetez. Norbeiten nahiaren errespetatzeko. Norbeit haren nahiak hartze baitzuen errespetu.

Beste xehetasun bat: jakizak bazuela merezimendu ixilik egoiten! Ez baitute aski akusatu IXILIK zagola? Beretarik bat bere gisa utzi zutela? IkusxhorixgaizkiaxerranxNaxixduenaxxexzduen hatxemaitenxetaxtolexgaizkiarenxerraitexbidexatx

Moimenduka hasi delarik, (ontsa, edo gaizki ez nuk jujez jartzen) berriz ere harria botatua izan zakok. Ixiliek egoni hobeko zuela!

Horiek oro entzun ditiat. Eta badakik zer jin zautan gogora? Gaizkia erran NAHI duenak, zoin aise hatxemaiten duen gaizkiaren erraiteko bidea!

Poliza jin-eta emaztekiak bereziki lurrean etzatea itsusi kausitu duk. Behar bada hala duk, funtsera-ta. Eni itsusiago zautak (hala balinbada) polizak jendea joitea. Eta egitate horren kontra nehor ez duk altxatu! Jendearen joitea, berenaz, ez duk dudarik gabe itsusi! NOR den joiten! Hortan duk ~~duxrikxgabexdenax~~ dena, dudarik gabe! Egia erran, "carte postale" hitsa aterako zitean, erresumaren omenarentzat.

Elgarrekin uztartu baitituk hor "carte postale" eta ohidurak: pare desberdina: idiarekin ardia!

Eskualtzaleetar^{et} ere heldu hiz. Errespetu badutala jakizak egiazko Eskualtzaleentzat. Ez baitute, emana zaioten ohorearen araberako plazerrik ez atseginik, ez irabazirik; lana baizik. Bainan, begiak hestea ez dik balio: besteak, eta hek dituk gehienak, egun on baten iragaiterat jiten dituk, Eskualdun kondu, Eskualtzale izan gabe. Agian hanitz urtez. Beste xehetasun bat hori ere: Eskualdun eta Eskualtzale, bi hitz direla, *bi giset izaiteren estalgi*.

Ene hunen gisa, hire lerro-aldea ere frango luzea baitzen, irakurri diat ere: "Enbata ez direnak traidore batzu direla". eta Enbataren kontra ari direnak ere".

Beste irakurgaiak bezela, Enbata kaseta ere irakurtzen diat. Holakorik erraiten dutela, ez diat buruan hartu. Traidore direla zioie, Eskual Herriaren kontra ari direnak, hemengo jendeen intresen kontra. Hatik ez duk klasa hortako Eskualdun hanitzik. Ez baitute kurailerik gaizkiaren egiteko ere, erraiteko baizik. Lo zaudek-eta! Eta badakik lo dagona traidore dela, besteen zaintzeko, argitzeko, laguntzeko KARGUA ukan duena delarik, kargu horrek EGIN-BIDE emaiten ~~diririk~~ baitio. Traidore zauzkaie Eskual Herriaren alde ARI EZ DIRENAK. Traidore, ENTSEATZEN ez direnak jendearen bizimoldearen ontzerat, gazteentzat lanaren fornitzetat.

Ohaduren atxikitzea dener ontsa zakoie. Eta behar die atxiki. Batasunak badituk hortako: Ikas, Eskualtzaleen Biltzarra eta beste. Zerbeit egiten die. Edo aski, edo ez aski: nor den juje. Zer nahi gisaz, ~~maxiduxix~~baitezpadako lanari ari dituk. Hortan oro ados.

Ene baia ez deat hatik emanen ondoko solasentzat. Zer egiten duen Enbatak eskuararen alde? Emak, munta lezaketela beste "Ikas" bat, beste "Esk. Biltzar" bat! Zer erran ziniote? Zer erran lio jendeak? To! Orai baitiuk biga! Lehengoaren KONTRA egin die berri bat! Nahasleak!! Jeloskorak! Ohore-goseak!!

Ez balinbahakien, har ontsa gogoan beste xehetasun hau: Enbata ez zela sortu bereziki eskuararen zaintzeko. Bazirelakotz jada, hortako, batasunak. Enbata duk politika-indar bat. Izena errana dik; izana zer duen errepikatzen dik. Sail bati ari duk. Ez baita bazterrekoer, ez kontrakoer, izenaren ez eta izanaren kanbiatzea.

Besten ogena aipatzen duk, zertan den. Beste horiek: Enbata-n ez direnak. Ez dituk ez ogendun, neskato haren preso hartzeaz. Ogendun dituk, hura preso hartua-izan eta, ixilik egoiteaz. Zuzenaren alde oihuka artzea, oro libertatean direlarik, biziki ontsa. Norbeit preso delarik haren alde indar bat EGITEA, hobe. Behar baita kuraie!

Ixilik daudenak ogendun direla erraitea, arrazoina, errailek. Erraile horiek Enbata-tiarrak izaitzea, hori duk hori domaia! Balire beste legun-legun hetarik... ~~zrxgizomaki~~ onhar giniok denek.

...Ari nuk hurbiltzen hire lerro-aldearen bururat. Ene hau ere hanbatenez ari duk ttipitzen. Zetabeak hatik beste pikor bat atxiki zautak. Presonerrak hobe duela "ixilik" ari direnen gainean kondatzea. Ageri duk badakikala. Nagusi hiz; nik ez zakiat. Ar ditela nahi badute "gordeka" ere. "Gorderik" egon diton lukek lastima!

Egungo utziko diuk hortan. Lan handia eman dautak. Gogotik egin diat hatik. Halere, otoi, ez zatakala beste lanik eman hemendik goiti. Edozoin batasun motaren IDEIAK ataka-zkik. Ez diat arropostu egiterik izanen, ez bainiz bihi-batean barne?

Hatik, otoi, JENDEAK ez ataka. Orduan ez nagokek ixilik. Bortxatua ninduzkek berriz ere lanean artzera/....

Faint, illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page. The text is mirrored and difficult to decipher.

Faint, illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page. The text is mirrored and difficult to decipher.

